



<b>Izenburua</b>	Gizarte-sareak + Euskara 2.0
<b>Egilea</b>	Jon Aizpurua (HPS)
<b>Data</b>	2010/04/21

# aurkibidea

---

aurkibidea.....	2
1. Sarrera.....	3
2. Ikerketaren metodologia.....	4
3. Hurbilpen teorikoa.....	5
4. Gizarte sareen erabiltzailearen ezaugarri nagusiak.....	6
5. Hizkuntzaren erabilera.....	8
6. Tuenti erabiltzaileen hizkuntza erabilera.....	9
7. Laburbilduz.....	10

## 1. Sarrera

---

Erabilera da hizkuntza baten bizi-indarraren adierazgarri nagusietako bat. Euskararen erabilera areagotzeko, beraz, ezinbestekoa da eskura ditugun baliabide guztiak aprobetxatzea. Horien artean, gizarte-sareek eta, oro har, teknologia berriek aukera ezin hobea eskaintzen digutela uste dugu.

Euskararen erabileran bereziki eragiten duten faktoreak bi dira:

- Hizkuntza-gaitasun erlatiboa, hau da, hizkuntza batean ala bestean jarduteko erraztasun handiagoa ala txikiagoa, eta
- Harreman-sareko elebidunen dentsitatea

Azken urteotako euskaldunen hazkundea hezkuntza-sistemaren garapenari zor zaio neurri handi batean. Euskaldun berriak gero eta pisu handiagoa hartzen ari dira euskaldunen artean, batez ere gazteenen artean. Gazte euskaldun berri horiek eskolan ikasi dute euskara eta familia zein gertuko komunitatea erdaldunak dituzte gehienek.

Hortaz, euskaldunen kolektiboan aldaketa sakonak gertatzen ari dira azken urteotan. Lehen hizkuntza euskara izan duen euskaldunak, gune euskaldunetan bizi eta familia eta lagunarte euskaldunak dituenak gero eta pisu txikiagoa du. Horren ordez, euskaldun berrien taldea ari da nagusitzen, hau da, lehen hizkuntza euskara ez duena, familia eta lagunartea euskaldunak ez dituen eta gune erdaldunetan bizi dena.

Bi kolektibo horiek (zaharrak/berriak) oso ezberdinak dira, euskaraz hitz egiteko duten trebetasunari edo erraztasunari dagokionez eta bai harreman-sareetan duten euskaldunen dentsitateari dagokionez ere. Hortaz, asko dira euskaraz hitz egiteko erraztasun txikiagoa dutenak; eta euren ingurune hurbila kontuan, gehiago erabil dezakete erdara euskara baino. Horrek guztiak, azken finean, baldintzatu egiten du hizketarako zein hizkuntza hautatzen den.

Hori horrela, gizarte-sareek aurrez aurreko presentziarik gabeko mintzajarduna eskaintzen digute. Euskara erabiltzeko harreman-sarea txikia denean edo harreman-sarerik ez dagoenean, gizarte-sareek mundu birtualean harreman-sarea eratzeko aukera eskaintzen dute. Hau da, gizarte-sareak mundu birtualean euskararen erabilera sustatzeko arnas guneak (hauspoak) izan daitezke.

Sarearen ezaugarriak labur-labur definitze aldera, interesgarriak iruditu zaizkigu Maria Antonia Martík, Bartzelonako Unibertsitateko Hizkuntza Teknologiararen Zerbitzuko zuzendariak adierazitakoa<sup>1</sup>. Haren

---

<sup>1</sup> [http://www.euskara.euskadi.net/r59-bpeduki/eu/contenidos/informacion/artik33\\_1\\_marti\\_09\\_12/eu\\_marti/artik33\\_1\\_marti\\_09\\_12.html](http://www.euskara.euskadi.net/r59-bpeduki/eu/contenidos/informacion/artik33_1_marti_09_12/eu_marti/artik33_1_marti_09_12.html)

esanetan, “sarea aldaketa sakonak ari da eragiten gizakion komunikatzeko moduan, baita giza elkarrekintzaren modalitate guztietan ere. Sarea irudia, soinua, ahotsa eta testua biltzen dituen askotariko espazioa bada ere, funtsean idatzizko edo ahozko hizkuntzaren bidez sortzen dira komunikazioak, elkarrekintzak eta informazioak. Komunikazio-sistema berriek bestelako aldaerak eragin dituzte hizkuntzen erabileraren forma grafikoan. Ildo horretan, aurretik ez zegoen lagunarteko idatzizko hizkuntzaren aldaera baten sorrera ari gara ikusten, baliabideen eta adierazpenaren ekonomia kontuan izanik, karaktere ortografikoak eta ikonikoak nahasten dituen, eta idazketa-lege propioak formulatzen ari dena. Erabileraren aldaera horrek ez du zertan idatzizko hizkuntzaren kalitatea arriskuan jarri; aitzitik, hizkuntzen bizitasuna, geldialdia edo atzerakada ebaluatzeko beste irizpide bat izan daiteke”.

Antonia Martík txukun azaldu duen agertoki berri horren aurrean, besteak beste, honako galdera hauek etorri zaizkigu gogora:

Zeintzuk dira gizarte-sareen euskal erabiltzaileen ohiturak?

Zein da euskal erabiltzailearen perfila?

Zeintzuk dira gizarte-sareak erabiltzeko orduan euskarak izan ditzakeen mugak, arriskuak, aukerak, onurak?

Zertarako erabiltzen dira gizarte-sareak?

Zeintzuk dira gizarte-sareak euskararen erabilera areagotzeko lehenetsi beharreko esparruak eta eragileak?

Zer estrategia erabili eta non aplikatu?

Galdera asko dira, eta seguruenik ikerketa bat baino gehiago egin beharko da, guztiei erantzun egokia emateko. Beraz, eskuartean dugun ikerketak bide horretan urrats bat baino ez du izan nahi. Erantzunak bilatzen ahaleginduko gara, baina argi daukagu bidean beste hainbat galdera sortuko direla. Eta hori da, hain zuzen ere, ikerketa honen helburu nagusia: beste galdera horiek plazaratzeko bidea erraztea.

## **2. Ikerketaren metodologia**

---

Ikerketan, oinarritzko teknika kualitatiboak erabili dira:

- sakoneko elkarrizketak (14)
- eztabaida-taldeak (4)
- behaketak (14)

Banaka elkarrizketatu diren kideak aukeratzeko kontuan hartu diren aldagaiak sexua, adina, hizkuntza-gaitasuna (euskaraz ongi/euskaraz zailtasunez) eta erabiltzen duten gizarte-sarea (Facebook, Twitter edota Tuenti) izan dira.

Eztabaida-taldeak lau izan dira. Horietako hiru osatzeko, taldekideek erabiltzen duten gizarte-sarea (Facebook, Twitter eta Tuenti) hartu da kontuan, eta laugarrena gizarte-sareetan dauden euskalgintzako eragileekin eratu da. Eztabaida-taldeetan 27 lagunek hartu dute parte guztira.

Azkenik, elkarrizketatuek gizarte-sareetan egiten duten jardunaren behaketa egin da. Elkarrizketatuaren pribatutasunari errespetu osoa gordez, behatu diren atalak jardun publikoari dagozkionak izan dira.

Ikerketa Farapi eta CodeSyntax enpresek egin dute, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hala eskatuta.

### 3. Hurbilpen teorikoa

Gizarte-sareei (errealei zein birtualei) buruz asko idatzi da azken urteotan. Teorizazioa gero eta sakonagoa eta mardulagoa da, baina ponentzia honen helburua ez da horretan sakontzea. Halere, interesgarria iruditu zaigu gizarte-sareen logika hobeto ulertzen lagundu diezaguketzen zenbait ideia labur azaltzea.

1. Aldaketa kontzeptuaren garrantzia. Gizarte-sareen mundua oso aldakorra da, eta sarea osatzen duten banakoek eragiten dituzte aldaketa horiek. Moorek eta Newmanek aktore sozialen aldaketarako gaitasuna azpimarratzen dute:

***“Para que podamos sacarle partido en redes y modelos agregados reales deberemos tener en cuenta algo más: los actores también modifican la red según sus propias estrategias de transformación, abriendo y cerrando vínculos, creando nuevos y destruyendo otros a lo largo del tiempo”.***<sup>2</sup>

2. Sare birtualek espazio fisikoak ezarritako mugak gainditzeko aukera eskaintzen dute. Manuel Castellsen iritziz informazioaren eta komunikazioaren teknologiei esker gizartearen (espazioaren eta denboraren) antolaketan aldaketak eragin daitezke. Interneteko gizarte-sareak testuinguru soziolinguistikoko birtual berriak osatzeko aukera eskaini diezaioke euskal hiztun berriari.

3. Objektu soziala da gizarte-sareen arrakastaren giltza. Jyri Engeströmen arabera objektu soziala erabiltzaileak beste erabiltzaile batzuekin konektatzeko arrazoia da. Objektu soziala konpartitu egiten

<sup>2</sup> [http://lasindias.net/indianopedia/Teor%C3%ADa\\_de\\_redes\\_sociales](http://lasindias.net/indianopedia/Teor%C3%ADa_de_redes_sociales). 2009ko abenduan kontsultatua.

da, beraz sarea sortzeko aukera ematen du. Flickr-en kasuan, esaterako, argazkiak dira eta Amazonen kasuan, liburuak.

4. Objektu sozialarekin batera, gizarte-sareen arrakasta aditz sozialetan eta partekatzeo aukeran dago. Lehenengoari dagokionez, aplikazioek edukiakin eragiketak egiteko aukera eskaini behar dute (Youtuberen kasuan, *itsatsi* da aipatutako aditza) Bigarrenari dagokionez, edukiak elkarren arten komentatzea edota baloratzea bizitasuna eta zentzua ematen diote sareari.

5. Taldekotasun printzipioa<sup>3</sup> eta osotasun printzipioa<sup>4</sup> batuz, Pello Jauregiren eskutik honako ideia hau datorkigu:

***Hizkuntza erabilera taldeen baitan ematen da, eta gutako bakoitzak gure hizkuntza-joera indibiduala egokitu egiten dugu talderen dinamikara eta arauetara. Talde bakoitzak sistema bat osatzen du, bere nortasuna, egitura eta dinamika propioak dituena. Hizkuntza erabilera testuinguru horretan ematen da.***

## 4. Gizarte sareen erabiltzailearen ezaugarri nagusiak

Gizarte-sarea terminoak ikerketa honetan propio aztertutakoak baino tresna gehiago hartzen ditu bere baitan. Halere, azpimarratu behar da gure ikerketarako hiru hartu direla: Facebook, Tuenti eta Twitter.

Aztertutako hiru sareetan, profil desberdineko jendea ageri da:

- Tuentiren erabiltzaileak gazteak dira, eta ia gazte guztiak bertan daude (14-25 urte arteko adin-tartean gehienak)

<sup>3</sup> Hizkuntza jokaera ez da gizabanakoaren alberdi hutsetik azter daitekeen kontua. Hizkuntza jokaera pertsonen arteko harremanari dagokion zerbait da, eta bikotea da gutxieneko kopurua. Elkarri egokituz eraikitzen da hizkuntza jokaera, eta egokitasunaren emaitza da jokaera ohiko bihurtzea. Hortaz, gizabanakoaren elkarrekintzan sortutako talde-arau batek gidatuko du gerora bakoitzaren jokaera. Talde baten eremua eta egitura dira aztergai nagusiak.

<sup>4</sup> Taldeak eremu sistemikoak dira. Hau da: nortasun, izaera eta ordena jakin bat dute. Talde edo osotasun baten nortasuna ez da kideen (edo zatikien) batuketa hutsa, nahiz eta kideek berea den zerbait eman dioten taldearen izaerari. Osotasuna funtsezko ezaugarria da, zatikiak ondoriozkoak dira.

- Twitterrenak inguru teknofiloan edota mediatikoan (kazetaritza, diseinua, kultura-produkzioa...) dabilzan profesionalak dira batik bat. Pixkanaka, halere, beste profil batzuetakoak ere bai, baldin eta lagunak eduki badituzten lehendik
- Facebooken erabiltzaileak profil orokorragoko jendea da

Erabiltzaileen profilak desberdintzeko orduan, adina da ezaugarri esanguratsuen. Tuenti erabiltzen dutenen batzuetako adina beste bi sareena baino askoz txikiagoa da. Hizkuntza-gaitasuna eta sexua, aldiz, ez dira, oro har, partaidetza modu batekoa ala bestekoa izatea baldintzatzen duten aldagaiak. Halere, esan behar da, gaur gaurkoz, Twitterreko sektore teknofiloan emakume gutxiago daudela. Horren arrazoia, seguruenik, enpresa teknologikoetan oraindik emakume gutxiago dagoela da.

Aztertutako hiru tresnek erabilera desberdina dute. Twitter erabiltzen dutenek informazio-iturri freskoa eta azkarra dela diote. Facebook eta Tuenti, aldiz, sozializazioarako erabiltzen da gehienbat. Halere, esan behar da sozializazioaren eta informazioaren arteko muga gero eta lausoagoa dela. Izan ere, Twitterren koadrilak daude eguneroko kontuetaz hitz egiten, Tuenti asko erabiltzen da ebentuetarako deialdiak egiteko eta Facebooken bidez informazio-estekak partekatzen dira.

Nerabeen erabilerari dagokionez, Estatuko 18 urtetik beherako gazteak Interneten konektatzen direnean 10etik 7 alditan gizarte-sareetan edo chat-etan sartzeko egiten dute. Horretaz gain, herena gizarte-sareetan edo chat-etan baino ez dira sartzen.

Aurtengo lehen hiruhilabeteetan, batez beste ordu bat eta sei minutu eman dute gizarte-sareetan nabigatzen. Iaz, ordea, 53 minutu eman zuten batez beste. Hortaz, hilean iaz baino sei ordu gehiago ematen dute gizarte-sareetan nabigatzen.<sup>5</sup>

Bestalde, Koro Castellanak, Tuentiko zuzendari nagusiak adierazi zuenez, Tuentik erabiltzaile gehiago du telebistak bere prime time orduetan baino. Horrek esan nahi du gaueko 9etatik 12etara gehiago direla Tuenti erabiltzen duten gazteak telebista ikusten daudenak baino. Sare honek 7 milioi erabiltzaile ditu erregistraturik eta batez beste 80 minutuz konektatzen dira egunero.

Gainera, Tuenti da erabiltzaileekin zita (engagement) egiteko ahalmen handiena duena, eta liderra da maiztasunean: 4 erabiltzailetik 3 egunero konektatzen dira. Ondoren datoz Messenger eta Facebook.<sup>6</sup>

<sup>5</sup> <http://www.hoytecnologia.com/noticias/siete-diez-veces-acceso-internet-menores-redes-sociales/166638>

<sup>6</sup> [HTTP://WWW.THESLOGAN.COM/ES\\_CONTENT/INDEX.PHP/INTERNET/9516-SEGUNDA-OLEADA-DEL-OBSERVATORIO-DE-REDES-SOCIALES](http://www.theslogan.com/es_content/index.php/internet/9516-segunda-oleada-del-observatorio-de-redes-sociales)

Erabiltzaileek gero eta jarrera handiagoa dute sareak probatzeko eta arakatzeko. Horrek gero eta exijentzia maila handiagoa dakar eta aldatzeko joera ere bai.

Tuenti erabiltzen dutenentzat adin bereko jendearekin sozializatzeko ezinbestekoa da bertan egotea. Izan ere, 14 urtetik gorako ikasle gehienak daude bertan.

## 5. Hizkuntzaren erabilera

---

Sarreran esan bezala, euskararen erabileran bereziki eragiten duten faktoreak bi dira: hizkuntza-gaitasun erlatiboa, hau da, hizkuntza batean ala bestean jarduteko erraztasun handiagoa ala txikiagoa, eta harreman-sareko elebidunen dentsitatea. Erabileran eragiten duten faktore horiei dagokienez, aurrez aurreko erabilerak eta sarekoak berdintsuak dira. Oro har, berriemaileak interneteko sareetan sartzen direnean, aurrez-aurreko harremanak (familia, koadrila, ikaskideak, lankideak eta abar) eta horiekin duten hizkuntza-dinamika (gaztelaniaz egiten dutenek gaztelaniazkoa eta euskaraz egiten dutenek euskarazkoa) ekartzen dituzte sarera.

Hizkuntza aukeratzeko orduan, erabiltzaileak audientzia hartuko du kontuan. Eta taldeak eleanitzak direnez, gaztelaniara jotzeko joera garbia dago.

Halere, erabiltzaileak audientzia horren barruan azpi-taldeak dituela sentitu dezake, eta azpi-talde horietako kideei zuzentzen zaienean, beste hizkuntza bat (euskara edo ingelesa, esaterako) erabiliko du.

Erabiltzaileak pertsona jakin bati zuzentzen zaienean, lehen mezuetan kalean pertsona horrekin erabiltzen duen hizkuntza bera erabiliko du. Euskaltzaletzat duenari ere euskaraz zuzenduko zaio.

Mezu-kateetan erabiltzaileak jarduna zein hizkuntzatan ematen ari den hartuko du kontuan. Baina mezu-kate horretan, pertsona jakin bati zuzentzan bazaio, zuzentzen zaión hori hartuko du kontuan hizkuntza aukeratzeko orduan (urtebetetzea zoriontzeko, esaterako)

Hizkuntza bat ala bestea aukeratzeko orduan, garrantzi handia du hizkuntzari buruz erabiltzaileak duen pertzepzioa. Horren harira esan daiteke euskaldunok euskarari buruz dugun irudia oro har ona dela<sup>7</sup>. Euskaldun gehienok euskara hizkuntza dinamikoa eta modernoa / berritzailea dela irizten diogu. Euskararen irudi orokorra positibotzat jo dezakegun arren, lorturiko emaitzak neurrizkoak direla ohartu

---

<sup>7</sup> *Euskarazko komunikabideak erabiltzeko eragingarriak eta eragozpenak*. Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, 2007.

behar gara. Izan ere, elkarrizketatu guztien herena eta erdia bitartean biltzen duen multzoak adierazi du euskarak irudi neutrala edo “ez positiboegia” duela.

Gizarte-sareen erabiltzaileen artean, gaztelania freskotasanarekin eta informaltasanarekin lotzen dute, eta euskara komunikazio formalarekin.

Hizkuntzaren zuzentasunari dagokionez, euskara gaizki erabiltzeko beldurra eta lotsa aipatu dira, bereziki euskaraz jarduteko zailtasuna dutenen artean. Badago euskaraz txukun eta egoki egiteko presio modukoa. Gaztelaniaz, aldiz, ez dago horrelakorik

Gune publikoetan (Twitterren edo Facebooken horman, esaterako) hizkera formalagoa, landuagoa erabiltzeko joera dago. Chatetan eta bat bateko mezuetan, aldiz, hizkuntza informalagoa erabiltzen da.

## **6. Tuenti erabiltzaileen hizkuntza erabilera**

---

Tuenti erabiltzen duten gazteek euskara bere interesen arabera erabiltzen dute, eta garrantzi berezia ematen diote freskotasanari, bat-batekotasunari eta kolokialtasunari. Horretako, hitzak laburtu, kodeak nahastu eta abar egiten dute.

Tuentiren erabiltzaileek gaztelania erabiltzen dute nagusiki. Gaztelaniaz ari diren erabiltzaileen artean, euskararen presentzia mezu laburretara mugatzen da: agurrak egiteko, zoriontzeko, eta abar. Euskarazko elkarrizketak gehiago dira bi kideren arteko elkarrizketetan.

Erabiltzaile euskaldunen kasuan, berriz, badaude euskarazko mezuak elkarrizketetan. Elkarrizketa horiek argazkietan egiten diren iruzkinen bitartez egiten dira: argazki horiek euskaraz idatzitako testua badaramate (“klaseko afaria”, adibidez), gora egiten du euskarazko iruzkinen portzentajeak.

Elkarrizketa bat euskaraz hasten denean, errazago izango du jarraipena euskaraz. Gaztelaniaz hasiz gero, elkarrizketak gaztelaniaz jarraituko du ia beti.

Tuenti erabiltzen dutenen artean, kode-nahasketa ugari dago. Erabiltzaile euskaldunek esaldiak tartekatzen dituzte euskaraz eta gaztelaniaz, besteak zoriontzeko edo agurtzeko. Elkarrizketa

erdaldunetan ere kode nahasketa erabiltzen dute erabiltzaile euskaldunek. Elkarrizketa horietan, euskararen lehen presentzia kode-nahasketaren bitartez ematen da.

Euskaraz bizi ez direnek ia ez dute euskararik erabiltzen Tuentin. Horretarako arrazoi nagusia gorago aipatutako beldurra da: euskaraz akatsak egiteko beldurra. Hizkera ez zaindua darabilte gaztelaniaz, baina euskaraz ez dira ausartzen hizkera ez zainduan aritzen.

Tuenti argazkiak komentatzeko eta ebentoak antolatzeko erabiltzen da nagusiki gaur egun. Tuentin informazioa masiboki hedatzeko garaian, gaztelaniara jotzen da ekitaldi edo ebento horietara deitzeko. Izan ere, behaketaren bidez egiaztatu ahal izan da euskararen erabilera handiena zuen behatuaren kasuan, jasotako ekitaldien %88 gaztelaniaz zirela.

Euskaraz sortutako ekitaldi gutxi horietan hiru gai nagusi daude: politika (diskurtso abertzalea), euskararen aldekoak eta jaiak iragartzeko (herrietako jaiak, afariak..., ez ordea diskoteketako jaien iragarki masiboak).

## 7. Laburbilduz

---

1. Euskara erabiltzeko harreman-sarea txikia denean edo harreman-sarerik ez dagoenean, gizarte-sareek mundu birtualean sarea eratzeke aukera eskaintzen dute.
2. Sare birtualek espazio fisikoak ezarritako mugak gainditzeko aukera eskaintzen dute.
3. Erabiltzaileen profilak desberdintzeko orduan, adina da ezaugarri esanguratsuen.
4. Erabileran eragiten duten faktoreei dagokienez, aurrez aurreko erabilerak eta sarekoak berdintsuak dira.
5. Hizkuntza aukeratzeko orduan, erabiltzaileak audientzia hartuko du kontuan. Eta taldeak eleanitzak direnez, gaztelaniara jotzeko joera garbia dago. Halere, erabiltzaileak audientzia horren barruan azpi-taldeak dituela sentitu dezake, eta azpi-talde horietako kideei zuzentzen zaienean, beste hizkuntza bat (euskara edo ingelesa, esaterako) erabiliko du.
6. Gizarte-sareen erabiltzaileen artean, gaztelania freskotasunarekin eta informaltasunarekin lotzen dute, eta euskara komunikazio formalarekin.
7. Euskara gaizki erabiltzeko beldurra eta lotsa dago, bereziki euskaraz jarduteko zailtasuna dutenen artean. Gaztelaniaz, aldiz, ez dago horrelakorik.
8. Kode-nahasketa da erabiltzaile gazteen ezaugarri nabarmenetako bat.

Udaltop lan-topaketa batzuk izan nahi dute. Helburu hori lortzen laguntzeko, ponentziak eskura jarri dira topaketak egin aurretik, nahikoa denbora izan dezan teknikari bakoitzak irakurtzeko, lantzeko eta hizlariari egingo lizkiokeen galderak prestatzeko. Jardunaldietan bertan, jadanik irakurriak egongo diren hitzaldiei adina tarte eman nahi zaie elkarrizketarako eta hausnarketarako tarteei.

Idatzi hemen zure galdera (ez ahaztu web gunetik bideratu behar duzula).

Galdera:

Azalpena:



---

T\_ (+34) 945 01 92 97 · F\_ (+34) 945 01 80 82  
[j-aizpurua@ej-gv.es](mailto:j-aizpurua@ej-gv.es) · [www.euskara.euskadi.net/r59-734/eu/](http://www.euskara.euskadi.net/r59-734/eu/)